

BIKETALENT

ERABILERA ANITZEKO BIKE ELEKTRIKO DISEINU PROIEKTUA 2023-2024 IKASTURTEA

SARRERA

“BikeTalent” proiektuaren helburua da mugikortasun jasangarriko soluzio berriak garatzea eta, horretarako, pedalei eragiteko laguntza duen erabilera askotariko ibilgailu bat diseinatzea hiri-desplazamenduetarako. Horri esker, hirietan ezarritako mugigarritasun-mugak gaitutako lirateke, kutsadura-arauek eta hirigune historikoak oinezkoen eremu bihurtzeak errekuntza-ibilgailuak sartzea zailtzen baitute.



PROIEKTUAREN HELBURUA

Euskadiko Lanbide Heziketako ikasleen gaitasun sortzailea eta berritzailea sustatzea, hiri-mugikortasunaren sektorea erdigunean izango duen proiektuaren bidez. Proiektu horretan, ikasleek produktuak eta zerbitzuak garatuko dituzte, enpresa-lehiakortasunaren bektore estrategiko gisa. Gainera, desiragarria/gingarria/bideragarria jarraibideei erantzungo dieten kontzeptu berriak garatzea bilatzen da.

Osagai sozialaren ekarpena baloratuko da, hala nola mugikortasun murriztuko pertsonei zuzendutako laguntzak, sektore zaugarrien integrazioa, edo ingurumen-gaiak —material birziklatuak erabiltzea edo osagaiak berrerabiltzea—.

Proiektuaren parte gisa, herritarren bizi-baldintzen eta -kalitatearen hobekuntzan eta lurraldearen garapen ekonomikoan inpaktu-ahalmen handia izango duen ekimen baten parte izango zara eta gizarte eta ekonomia jasangarriagoetarako trantsizioa bultzatuko duzu.

Gizartea eraldatuko duen ibilgailua aztertu, diseinatu eta garatzea

AIC Europako zentro bat da, mugikortasunaren sektorerako balioa sortzea helburu duena eta berrikuntza irekiaren kontzeptuan oinarritzen dena. Mikromugikortasunaren arloan, zehazki, bizikleta bidezko mugikortasun jasangarria sustatuko duen kultura, teknologia eta industriaren garapenerako konpetentzia-zentro espezifikoa bat du.


Tknika Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak sustatutako zentro bat da.

Tknikak ikerketa eta berrikuntza aplikatua du ardatz, eta Euskadiko lanbide-heziketak Europako abangoardian jarrai dezan lan egiten du.

Parte hartzen duten taldeek aintzatespen publikoa izango dute, baita aurrerago zehaztuko den ekarpena ere.



DATA



FUNTSEZKO EKINTZAK



EMAITZAK

IRTEERA

IRTEERA ABENDUA

Ikasleei briefing-a ematea eta proiektuaren hastapenak.

ANALISIA URTARRILA

Artearen egoera aztertu eta sortzea. Erabiltzaileak aztertu eta entzutea. Aditu-taldeek edo erabiltzaile-taldeek parte hartzea eskatzen duen prozesua abian jartzea.

Ikerketa-txostena eta proiektuaren ikuspegiaren azterketa eta planteamendua.

SORTZEA ETA EMATEA

DISEINU KONTZEPTUALA URTARRILA - OTSAILA

Kontzeptu edo ideia potentzialetan lortutako ikuspegia eraldatuko duten sormen- eta kontzeptualizazio-prozesuak abian jartzea, zirriborroak eta/edo prototipoak egitearen gisako tresna eta tekniken bidez. Fase honetan funtsezkoa da erakunde laguntzaile guztiek parte hartzea planteatutako ideiei feedbacka emateko garaian.

Kontzeptuen proposamena erakusketa-euskarrietan, ereduak eta oinarrizko prototipoak ematea.

GARAPENA MARTXOA - APIRILA

Aukeratutako ideiak benetan implementatzeko problemak ebaztea. Bideragarritasunaren eta industrializazioaren planteamendua.

Proiektuaren memoria zehatza, proiektua ulertzeko behar diren materialak barnean direla. Prototipo birtuala egitea.

AURKEZPENA

AURKEZPENA MAIATZA

Azken emaitzak erakunde laguntzaile guztien aurrean aurkeztea, azalpen-euskarriak eta aurkezpen formalak erabiliz. Soluzioen azken ebaluazioa.

Material necesario para comunicación de los proyectos.